

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HEZKUNTZA SAILA

4165

EBAZPENA, 2025eko irailaren 25ekoa, Langileriaren kudeaketa zuzendariarena, zeinaren bidez Auzitegi Gorenaren epaia betetzeko, hirugarren aldiz aldatzen baita 2019ko uztailaren 30eko Ebazpena, Hezkuntzako sailburuaren 2019ko martxoaren 1eko Aginduen bidez deitutako hautaketa-prozeduretan hautatutako izangaien behin betiko zerrendak argitaratzea xedatu zuena.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.c) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak maila bereko xedapen baten bitartez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira, eta horiek zuzentzearen ondorioz, dokumentuaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada.

Hezkuntzako sailburuaren 2019ko martxoaren 1eko Aginduen bidez, hautaketa-prozedurarako deialdia egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko (2019ko martxoaren 7ko EHAA).

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2025eko uztailaren 10eko Ebazpenaren bidez, Auzitegi Gorenaren epaia betez, 2019ko uztailaren 22ko Ebazpenaren bigarren aldaketa egin zen. Ebazpen horren bidez, Hezkuntzako sailburuaren 2019ko martxoaren 1eko Aginduen bidez deitutako hautaketa-prozeduretan lehiaketa-fasearen guztizko puntuazioak argitaratu ziren.

Aldaketak berekin ekarri du Maider Sardui Jaio andreak lehiaketa-fasean lortutako guztizko puntuazioa handitzea. Era berean, horrek lortutako puntuazio orokorra handitzea dakar (lehiaketa- eta oposizio-faseetako puntuazioen haztapenaren emaitza, alegia), eta, ondorioz, hautatutako pertsonen zerrendetan sartzeari.

Horrenbestez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aldatzea Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2019ko uztailaren 30eko Ebazpena, zeinaren bidez argitara eman baitziren Hezkuntzako sailburuaren 2019ko martxoaren 1eko Aginduen bidez deitutako hautaketa-prozeduretan hautatutako izangaien behin betiko zerrendak (Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozedurak), 2019ko abuztuaren 30eko Ebazpena, eta 2020ko urtarrilaren 13ko Ebazpena, aurrekoa aldatzen duena, honela:

Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren kidegoko Haur Hezkuntzako espezialitatean hautatutako izangaien zerrendan honako hau sartzeari:

– Maider Sardui Jaio andrea, 6,6201 puntuko azken notarekin.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Hezkuntza Sailearen webgunean argitaratzea (<https://hezigunea.euskadi.eus/>) («Erabiltzailea» eta

«Pasahitza» sartu beharko dira) – «Berriak» atala eta <https://www.euskadi.eus/informazioa/enplegu-publikoaren-eskaintza-aurreko-deialdiak/web01-a3hhlair/eu/>

Hirugarrena.– Lehenengo ebazpen-zatian aipatutako izangaiak bete egin du Hezkuntzako sailburuaren 2019ko martxoaren 1eko Aginduaren hamaikagarren oinarrian zerrendatutako dokumentuak entregatzeko izapidea. Horiek aztertuta, aipatutako aginduaren 2. oinarrian adierazitako baldintzaren bat betetzen ez duela ondorioztatzen bada, karrerako funtzionario izendatua izateko eskubide guztiak galduko ditu, hasierako eskabidean faltsukeria egiteagatik izan dezakeen erantzukizuna alde batera utzi gabe.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 25a.

Langileriaren kudeaketa zuzendaria,
UNAI NIETO MARIJUAN.